Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4762

AGINDUA, 2010eko maiatzaren 6koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Loiola Berrikuntza Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Azkoitiko (Gipuzkoa) «Loiola Berrikuntza Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

1.– «Loiola Berrikuntza Fundazioa» eratu dute honako merkataritza-sozietate hauek: «Iraurgi Lantzen SA», «Urola Erdiko Industrialdea SA», «Biele SA», «Antzibar SA» «Corrugados Azpeitia SL», «Grupo Glual SL», «Sarralle Servicios Generales SL», «Ibarmia Gestinver SA», «Juaristits Comercial SL» eta «Sammic SL»k; horretarako, eratze-eskritura publikoa eman zuten 2009ko abenduaren 30ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Notarioen Elkargoko kide Iñigo Escales Ainzua Segurako notarioaren aurrean (618 protokolozk.); Azkoitiko notariotzaren ordez jardun du notario horrek, hura hutsik baitago.

2010eko urtarrilaren 13an sartu zen eskritura hori Justizia eta Herri Administrazio Sailean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren Aholku Batzordea bildu zen, fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko. Batzorde horrek fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen 2010eko martxoaren 17an.

2.– «Loiola Berrikuntza Fundazioa» delakoaren helburua estatutuen 3. artikuluan dago jasota:

Loiola Berrikuntza Fundazioak, bertan parte hartu nahi duten enpresa eta erakundeen bidez, interes orokorreko helburutzat dauka Urola Erdia eskualdearen garapen ekonomiko eta sozialari aktiboki laguntzea; horretarako, berrikuntza teknologikoa eta eraldatze ekonomiko eta soziala sustatuko ditu, hain zuzen ere, eskualde horretako sare sozial eta ekonomikoaren lehiakortasuna eta iraunkortasuna indartzeko eta, gizartean, berrikuntza teknologikoaren kultura sustatzeko, betiere, Urola Erdiko biztanleek ongizate-maila hobea izan dezaten.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

4762

ORDEN de 6 de mayo de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe en el registro de fundaciones del País Vasco la denominada «Loiola Berrikuntza Fundazioa».

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada «Loiola Berrikuntza Fundazioa», de Azkoitia (Gipuzkoa), sobre la base de los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por las Sociedades Mercantiles «Iraurgi Lantzen, S.A.», «Urola Erdiko Industrialdea, S.A.», «Biele, S.A», «Antzibar, S.A» «Corrugados Azpeitia, S.L.», «Grupo Glual, S.L.», «Sarralle Servicios Generales, S.L.», «Ibarmia Gestinver, S.A.», «Juaristits Comercial, S.L.», « Sammic, S.L.», se ha constituido la denominada «Loiola Berrikuntza Fundazioa» mediante Escritura pública de constitución otorgada el 30 de diciembre de 2009, ante el Notario del Ilustre Colegio del País Vasco, con residencia en Segura, actuando como sustituto de la Notaría de Azkoitia por vacante, D. Iñigo Escales Ainzua, con el número 618 de su protocolo.

Dicha escritura tuvo entrada en el Departamento de Justicia y Administración Pública el 13 de enero de 2010.

Reunida la Comisión Técnica de la Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones del País Vasco con la finalidad de verificar la licitud e interés general de los fines fundacionales, emite, con fecha 17 de marzo de 2010, informe favorable a su inscripción registral.

2.– El fin fundacional de la denominada «Loiola Berrikuntza Fundazioa» viene establecido en el artículo 3 de su norma estatutaria:

Loiola Berrikuntza Fundazioa, a través del protagonismo de cuantas empresas y organizaciones quieran participar, tiene como fin fundacional, de interés general contribuir activamente al desarrollo económico y social de la comarca de Urola Erdia, apoyando impulsando y promoviendo la innovación tecnológica y la transformación económica y social, al objeto de potenciar la competitividad y sostenibilidad de su tejido social y económico, así como fomentar la cultura de la innovación tecnológica en la sociedad para alcanzar mayores cotas de bienestar de los ciudadanos de Urola Erdia.

Fundazioaren sortzaileek Urola Erdia eskualdearen etorkizunaren alde hartu duten konpromisoa Loiola Berrikuntza Fundazioan gauzatu dute; izan ere, bertan erabakitasunez sustatzen dituzte jakintza, berrikuntza, giza kapitalaren balorizazioa eta gizartearen parte hartze aktiboa, betiere, iraunkortasun sozial eta ekonomikoaren oinarri gisa.

Helburu horiek betetzeko, bestelako ekimenak bultzatzea alde batera utzi gabe, eta indarreko legediarekin bat etorriz, honako jarduera hauek egingo ditu Fundazioak:

– Inbertsioak sustatzea, enpresa eta langileentzako esparru erakargarri bat sortzeko, betiere, eragile publiko eta pribatuekin elkarlanean.

– Urola Erdia eskualdearen jarrera estrategikoa, berrikuntza teknologikoa eta egitura ekonomikoaren dibertsifikazio eta modernizazioa bultzatzea.

– Jakintzako sektore intentsibo berrietan, enpresaproiektuei eta -jarduerei laguntza eta bultzada ematea, betiere, unibertsitate, zentro teknologiko eta enpresekin batera.

– Enpresen eta berrikuntza-eragileen arteko elkarlana sustatzea eta bitartekari-lana egitea, hain zuzen, eskualdean berrikuntzari zabalkundea emateko, teknologia transferitzeko eta berrikuntzako politikak ezartzeko.

– Teknologia berritzeko eta garatzeko proiektu eta ekimenak erakarri, bultzatu eta laguntzea, lehiakortasuna hobetzeko estrategia gisa.

– Giza kapitala garatu eta lanbide heziketa indartzea, eragile sozioekonomikoekin batera.

– Hezkuntzaren eta berrikuntzaren garapenari bultzada ematea, hain zuzen, jakintzari balio erantsia emateko.

– Eskualdeko giza kapitala eta gaitasuna erakarri eta enpresetara biltzea.

– Liburuak eta argitalpenak editatzea, biltzarrak eta ekitaldiak antolatzea, bekak, laguntzak eta sariketak sustatzea, eta, oro har, fundazioaren helburuak lortzeko gobernu-organoek agintzen dituzten jarduera guztiak egitea.

3.– Fundazioaren helbidea, fundazioaren estatutuetako 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau da: Insausti Jauregia, Julio Urkixo 25, 20720 Azkoitia (Gipuzkoa).

4.– Hasierako dotazioa berrogeita hamalau mila (54.000) eurokoa da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioaren espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c) artikuluak.

Loiola Berrikuntza Fundazioa representa la plasmación del compromiso de sus fundadores por el futuro de la comarca de Urola Erdia, apostando decididamente por el conocimiento, la innovación, la valorización del capital humano y la participación activa de la sociedad como pilares básicos de la sostenibilidad social y económica.

Para su consecución, y sin perjuicio de la capacidad de obrar en cumplimiento de sus fines y conforme a lo previsto por la legislación vigente, podrá llevar a cabo las siguientes actividades:

– Promoción de inversiones para favorecer un marco atractivo para las empresas y los trabajadores, en colaboración con los agentes públicos y privados.

– Impulso al posicionamiento estratégico, la innovación tecnológica y la diversificación y modernización de la estructura económica de Urola Erdia.

– Promoción y apoyo a proyectos y actividades empresariales en nuevos sectores intensivos en conocimiento, en colaboración con universidades, centros tecnológicos y empresas.

– Colaboración y mediación entre las empresas y los agentes innovadores para la difusión de la innovación, apoyo a la transferencia de tecnología e implementación de las políticas de innovación en la comarca.

– Captación, impulso y apoyo de proyectos e iniciativas de innovación y desarrollo tecnológico como estrategia de mejora competitiva.

– Desarrollo del capital humano y potenciación de la formación profesional en colaboración con los agentes socioeconómicos.

– Impulso al desarrollo de la educación y la innovación para convertir el conocimiento en valor añadido.

– Apoyo a la captación e incorporación en las empresas del talento y capital humano de la comarca.

– Edición de libros y publicaciones, organización de congresos y eventos, promoción de becas, ayudas y premios y, en general, la realización de cuantas actividades le sean encomendadas por sus órganos de gobierno para la consecución de sus fines fundacionales.

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 6 de los Estatutos fundacionales, radicará en: Insausti Jauregia, Julio Urkijo 25, 20720 Azkoitia (Gipuzkoa).

4.– La dotación inicial asciende a la cantidad de cincuenta y cuatro mil (54.000) euros, cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c) del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Ondare-zuzkidura egokitzat eta askitzat jotzen da fundazioaren helburuak lortzeko, Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 12.1 artikuluaren arabera. Azken xedapenetatik lehenengoari jarraituz aplikatuko da artikulu hori.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetako 13. eta 19. artikuluetan ezartzen den moduan.

6.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, eta estatutuetako 12. artikuluaren arabera, hauek izango dira:

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición final 1.ª.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 13 y 19 de los Estatutos fundacionales.

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional siguiendo lo establecido en el artículo 12 de los Estatutos, está integrado por:

Kargua		Iraupena
Lehendakaria	Iraurgi Lantzen SA, Julián Eizmendi Zinkunegi jaunak ordezkaturik	Mugagabea
Lehendakariordea	Urola Erdiko Industrialdea SA, Asier Aranbarri Urzelai jaunak ordezkaturik	Mugagabea
Idazkaria	Sammic SL, Jon Markina Iriarte jaunak ordezkaturik	Mugagabea
Bokala	Biele SA, Domingo Andonegui Martinez jaunak ordezkaturik	Mugagabea
Bokala	Antzibar SA, Santiago Lazcano Uranga jaunak ordezkaturik	Mugagabea
Bokala	Corrugados Azpeitia SL, Pello Aguirre Eizmendi jaunak ordezkaturik	Mugagabea
Bokala	Grupo Glual SL, Ignacio Guibert Espel jaunak ordezkaturik	Mugagabea
Bokala	Sarralle Servicios Generales SL, Elias González Gil jaunak ordezkaturik	Mugagabea
Bokala	Ibarmia Gestinver SL, Koldo Arandia Otegi jaunak ordezkaturik	Mugagabea
Bokala	Juaristi Tsco SL, Javier Ariznabarreta Churruca jaunak ordezkaturik	Mugagabea
Bokala	Iosu Bastida Uzin jauna, Iraurgi Lantzen SAk izendatuta	Mugagabea
Bokala	Jesús Maria Agirre Eizmendi jauna, Iraurgi Lantzen SAk izendatuta	Mugagabea
Bokala	Javier Blázquez Sastre jauna, Urola Erdiko Industrialdea SAk izendatuta	Mugagabea

Cargo		*Duración*
Presidente	*Iraurgi Lantzen, S.A. representada por don Julián Eizmendi Zinkunegi*	*Indefinida*
Vicepresidente	*Urola Erdiko Industrialdea, S. A. representada por don Asier Aranbarri Urzelai*	*Indefinida*
Secretario	*Sammic, S.L. representada por don Jon Markina Iriarte*	*Indefinida*
Vocal	*Biele, S.A., representada por don Domingo Andonegui Martinez*	*Indefinida*
Vocal	*Antzibar, S.A., representada por don Santiago Lazcano Uranga*	*Indefinida*
Vocal	*Corrugados Azpeitia, S. L. representada por don Pello Aguirre Eizmendi*	*Indefinida*
Vocal	*Grupo Glual, S. L representada por don Ignacio Guibert Espel*	*Indefinida*
Vocal	*Sarralle Servicios Generales, S. L. representada por don Elias González Gil*	*Indefinida*
Vocal	*Ibarmia Gestinver, S.L. representada por don Koldo Arandia Otegi*	*Indefinida*
Vocal	*Juaristi Tsco, S.L. representada por don Javier Ariznabarreta Churruca*	*Indefinida*
Vocal	*Don Iosu Bastida Uzin, designado por Iraurgi Lantzen, S.A.*	*Indefinida*
Vocal	*Don Jesús Maria Agirre Eizmendi, designado por Iraurgi Lantzen, S.A.*	*Indefinida*
Vocal	*Don Javier Blázquez Sastre, designado por Urola Erdiko Industrialdea, S.A.*	*Indefinida*

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Halaxe agintzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan.

Bigarrena.– Legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistro-

Todos ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública, mediante Orden, la Resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco; el artículo 3 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio; y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y ss. del Reglamento del Registro de

aren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerako arauak ikusi dira.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaur, F-263 zenbakiaz, Azkoitiko (Gipuzkoa) «Loiola Berrikuntza Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira, eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 6a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistas las normas mencionadas y demás normas de general y pertinente aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de F-263, de la constitución de la denominada «Loiola Berrikuntza Fundazioa», de Azkoitia (Gipuzkoa), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 4.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme a lo dispuesto en el artículo 2.2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de mayo de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.